

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2014ko MAIATZAREN 8an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2014ko maiatzaren 8an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola  
Imanol Aranzabal Lasa  
Aritz Usandizaga Larrañaga  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen dute: Karlos Irazu Muñoa eta Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
  - 2014ko apirilaren 3an egindako ohiko bilkura.
  - 2014ko apirilaren 29an egindako ez-ohiko bilkura.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Tolosaldeko landa garapen elkarteari, hau da, TOLOMENDI-ri 2014 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 4. 2013 urteko kultur asteko gastuen kitapenaren berri ematea, hala bada.**
- 5. K.J. jaunak aurkezturiko idatziaren azterketa, hala bada.**
- 6. Fakturak eta ordainketak.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

#### LEHENENGO PUNTUA

**ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ☐ 2014 urteko apirilaren 3ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- ▣ 2014 urteko apirilaren 29ko Udalbatzaren ez-ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

07/2014 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 14koa, Toyota hilux D4D ibilgailua erosteko onespina ematea, ebazten duena.

08/2014 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 25ekoa, Bixente Otegi Lizaso S.L. ri “Portale bidea-Beobide” herri bidea asfaltatzeko kontratua esleitzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEARI, HAU DA, TOLOMENDI-ri 2014 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Garapen elkarteak, TOLOMENDI-k, 2014ko apirilaren 5ean Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2014. Urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuela.

Ikusirik goian aipaturiko banaketa horren ondorioz, Larraulgo Udalari 1.988,85 euro ordaintzea dagokiola, elkartearen funtzionamendurako.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DUTE:**


LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 1.988,85 eurotako ekarpena burutzea 2014 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 2014 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **2013 URTEKO KULTUR ASTEKO GASTUEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik 2013ko azaroak 25etik abenduaren 1era Larraulgo Aste Kulturala egin zela bertan hainbat gastu egon zirelarik. Ondorengoak izanik:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### GASTUAK:

-Kartelak	120,00
-Egutegia	550,00
-Afaría(bakoitzak ordaindua)	189,56

#### **Ekintzak**

-Txiste kontalaria	150,00
-Hitzaldia Egur Hila	150,00
-Enologoa eta ardoak	250,00
-Elkartea	7,65
-Jazz Kontzertua	350,00

#### **Mus Txapelketa**

-Arkumea	69,00
-Elkartea	39,24

#### **Haur merienda eta eskulanak**

-Elkartea	19,04
-Janaria	47,30
-Eskulanak	78,70

#### **Talo jana**


-Urdaia-Gazta	86,00
-Txorixoa	64,25
-Artirina	34,00
-Gaztainak	112,50
-Txokolatea-freskagarriak-ogia	25,76
-Elkartea	202,50
-Saskia	54,00

**GUZTIRA: 2.599,50€**

### SARRERAK:

-Udalaren ekarpena	2.000,00
-Saski boletoak	196,50
-Mus txapelketa	80,00
-Afaría	215,00
-Basoak Ostatura	13,00
-Egutegien salmenta	20,00

**GUZTIRA: 2.524,50€**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**BALANTZEA:**

**-75,00€**

Gaia aztertutik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2013ko aste kulturaleko gastuen kitapena onestea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **K.J. JAUNAK AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik K.J. jaunak aurkezturiko idatzia, non ondorengo dioen:

*“2014ko urtarrilaren 21an, egindako eskaera, sarreraren zenbakia 30. Borda bat egiteko eskaera egin nuen.*

*2014ko otsailaren 27an jasotako erantzuna, irteeraren zenbakia 46 Larraulgo Arau Subsidiaritariako 64. Artikuluaren arabera eskatutako borda ezingo dudala egin.*

*Azken zazpi urte hauetan Larraulgo herrian egindako bordak eta beste obrak, Larraulgo Arau Subsidiariak betetzen ez dituztenekin zer egitea pentsatzen dezue?*

*¿Bota edo baimena eman?*

*Jakin egin nahi det erantzun zehatz eta garbi azkar bat.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:


BAKARRA: K.J. jaunari jakinaraztea, Udaletxe hau saiatzen dela gauzak ahal diren hobeto egiten eta baimenak ematerakoan, Larraulgo Arau Subsidiarioetan arautzen dena aplikatuz ematen direla.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TOLOMENDI	122,40
TOLOMENDI	122,40
BERRO-BIDE, S.L.	180,29



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

DIONISIO ORMAZABAL	37,82
MANPEL	19,01
GIPUZKOASHARE	211,75
LEIBI	56,05
BELAKO	30,00
ULAHI	363,00
LIDOINSA	849,42
AITZOL	51,04
GALPARSORO INDUSTRIAL	87,74
BULEGOAK	75,37
FERRETERIA BARBE	57,63
CARPINTERIA ATARI	83,49
DIONISIO ORMAZABAL	5,99
IZFE	1.816,62
EBA ERKIZIA	121,75
GAS NATURAL FENOSA	216,41
GAS NATURAL FENOSA	334,98
GAS NATURAL FENOSA	143,61
GAS NATURAL FENOSA	570,09
GAS NATURAL FENOSA	58,15
GAS NATURAL FENOSA	267,82
GAS NATURAL FENOSA	354,32
GAS NATURAL FENOSA	143,77
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	61,94
MOVISTAR	18,81
MOVISTAR	19,35
MOVISTAR	79,56
MOVISTAR	79,72

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.772,03** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

---

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA